ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

LABURBILDUZ: ALTZA

AURKIBIDEA

- ALTZA ERDI AROAN
- ARMARRI ALTZATARRAK
- ALTZAKO SEME-ALABA OSPETSUAK
- ALTZAKO UDAL ADMINISTRAZIOA
- DESANEXIO ETA ANEXIOAK
- ALTZAN BARRENA
- BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Honako lan xumea babesteko toki ezin aproposagoa dugu CASARES KULTUR ETXEA, ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAk eta Tokiko Bildumak bertan aterpea dute eta.

Ondoko orrietan Altzako historiaren zenbait atal jorratu nahi izan dugu, aipatutako bilduman gordetzen den materiala landuz.



Bilduma zein Mintegia, zer esanik ez Kultur Etxea bera, altzatar eta altzazaleen jakinmina asetzeko irrikitan daude; denon partaidetza, denon kontsultak, denon ekarpen eta iritziak beharrezkoak bezain ongietorriak dira.

"Laburbilduz: Altza" ez da lan itxi bat, aberastu nahi duguna baizik. Altzako atean denok, zuk eta zure lanak ere bai, tokia dugu eta.

ALTZA ERDI AROAN

1141. urtean '*Alça*'ren lehenengo aipua topatzen dugu, Nafarroako Erregea zen Gartzia Berrezarleak emandako agiri batean, berea baitzen lurralde hau, bai eta Gipuzkoa osoa ere.

Une horretatik abiatuz, besteak beste hauek dira datarik aipagarrienak:

- **1178.a:** Altza ageri da Iruñeako Elizak Donostialdean dituen eremuen artean
- **1390.a:** San Martzial Baseliza eraiki zen
- **1397.a:** Gipuzkoako Batzarrak, Getarian bilduta, Altza aipatzen du bere Ordenantza Kuadernoan.

Erdi Arotik aurrera gure komunitatea gero eta nabarmenagoa bilakatu da, hala Donostialdean nola Gipuzkoako historian. Lurralde osoan behin eta berriro aipatuko dira Altzako jarduera ekonomikoa (sagardoa, merkataritza abelzaintza...), erlijiosoa (istilutsua maiz), eta izen altzatarrak (Txipres, Berra, Miraballes; Garbera, Kasares, Sius,...).



ALTZAKO BASERRIAK (1500)

Hauetako ezaugarri asko eta asko gaurdaino iritsi direla bistan da nahiz eta eraldaketa handia pairatu.

Nolakoa ote zen Altza zahar hura? Nola irudikatu? Bada, San Martzial gune nagusia izanik, etxeak eta baratzak bere inguruan antolatzen ziren. Toki nagusi honetatik urrundu ahala, baserriak han-hemenka, nekazal lurrak (zereal-soro, sagardiak, e.a.) eta basoak... Edonola ere, batasuna duen giroa da, berezko unibertsoa; berezko barne antolakuntza irmoa dago Altzan.

Ertaroko aztarna gutxik saihestu du txikizioa; halere, batetik, **baserriek hartu duten tokia** edota **eremuak banatzeko modua** azpimarratzeko aztarnak ditugu; eta, bestetik, esate baterako, **Txipres** dorrea, edota **bideak** - Astigarraga aldekoak; Orereta-Molinao-Donostia zeharkatzeko Altzatik errazagoa dela erakusten digun Gazteluenekoa- garai hartatik ere gorde ditugu.



TXIPRES DORRETXEA (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea).

ARMARRI ALTZATARRAK

Armarriek, zigiluek edota pertsonak irudikatzen dituzten bestelako irudiek ez dira ezerezetik sortu; irudi, ikur eta marrazki hauek esanahia sakona dute. Ordezkatzen dutenaren inguruan informazio zehatza eskaintzen eta aldarrikatzen dute.
Ez dira apaingarri hutsak, nortasun agiriak baino. Hiribildu, sendi, etxe, ... bakoitzari berea dagokio.

Irudia gauzatzeko orduan Altzako hiribilduak erabili duen ikurra itsuraz aldakorra izan bada ere, **altza zuhaitza**, behin eta berriz agertzen da.

Artzak-Ortzeok Elkartearen Armarria

Altzako Hiriko Armarria (1931)

Altzako Alkateordetzaren zigilua (1860)

Era berean, Altzako sendirik garrantzitsuenak euren armarriak ikusgai eta ikusgarri paratu zituzten, etxeko horma nagusienetan gehien bat. Hona hemen hauetako batzuk:

-**Kasares**: 1. eta 4. laurdenak zilarrezkoak, ondarrezko koloredun basurde ibiltariarekin; 2. eta 3. laurdenak gules-ekoak, urrezko gazteluarekin.



-.**Arzak**: Urrezkoa, kukulan oilarra eta enborrean artza zutituz duen sinople-zko zuhaitzarekin



-**Berra** : Zatitua. Alde bat azur, urrezko dorreakin; honen atean, basurdea; beste aldea gules-ekoa, urrezko gurutze loreduna duelarik.



-**Parada**: Zatitua. Alde batean zuhaitza, bi otso enborrean zeharkaturik; bestean hiru faja, orla moduan bi suge isatsan loturik.

OHARRA: ONDARRA=BELTZA; GULES=GORRI; SINOPLE=BERDE; AZUR=URDIN

ALTZAKO SEME-ALABA OSPETSUAK

Pasaiako kai ederraraino hedatua izanik, mariñel asko eman du gure herriak, horietako batzuk itsasgudetan nabermendu zirelarik.

- **Miguel de Garro**: 1540. Urtean, Espainiako Carlos V. enperadorearen zerbitzuan, Gibraltar turkoengandik babesten ospea lortu zuen kapitain honek.

- **Miguel de Miraballes**: Altzatar abizen artean handienetarikoa. Gizon ausarta, soldadu prestu, marinel trebea. Magallaes handiarekin itsasoratu eta kortsario ingelesen aurka borrokan hil zen.



ALTZATAR ASKOK PASAIAN ITSASORATU ONDOREN LORTU ZUEN OSPEA

Mende honetan, aldiz, beste motatako pertsonak sortu dira Altzan, gure txokoaren izen ona ozenki zabalduz.

- ✓ **Segundo Casares**. Mende hasierako alkatea, independentzia administratiboaren aldekoa beti, bai alkate bai eta zinegotzi moduan. Anexioaren gaitzak eta arriskuak ederki aurrikusi zituen. Bere zuzendaritzapean Hiribilduaren izaera onartu zitzaion Altzari 1910. urtean

- ✓ **Txirrita**: Oreretako izan arren, Altzan eman zuen bere bizitzaren zati eder bat, Gazteluenen hain zuzen ere. Horren lekuko, bere bertsoaz gain, oroimen grafiko ugari.

✓ **Juan Mari Arzak**. Zalantzarik gabe gure altzatar unibertsala; euskal sukaldaritza berriaren aintzindari hau maitekiro mintzatzen da beti Altzari buruz. Badira, gutxienik, 600 urte arzakdarrak Altzan bizi direla. Bere jatetxe ospetsua ere Altzan dago kokatuta.

✓ **Joan Mari Irigoien**. Ahal duelarik beti aipatzen du bere jaioterria idazle honek. Altzak jasandakoa bere idazkieetan isladatzen du askotan. Ondoko olerki hauek lekuko:

DONOSTIAN NAGUSI, PEPE;
ETXEAN, BERRIZ, PEPITO:
EZ DAITEZELA IZAN BETIKO!

***

-ZER AGINTARI DOA AUTOBUS HONETAN?
-ORDOÑEZ?
-NAHIAGO ORDUAN OINEZ!

***

TXANTXANGORRIAREN HABIAN
NAGUSI DA KUKU
ETA FU, HEMEN, MUTU.

***

DONOSTIAK JOTZEN DUEN SOINUAN
EGITEN DU ALTZAK DANTZA:
DATORREN URTEAN ERE BERDIN
JOKO DUGU DANBORRADA, ANTZA ...

***

BAINA ALTZAN DEN-DENA
TXAR-TXARRA ERE EZ DEGU:
ARRIYAKO PARKEA, EREDU.

***

ONDO AHAZTUTA DUGU ZER ESAN ZUEN TROSSKI-K.
LANGILEEN ARAZOAK KONPONDUKO DITU EROSKIK...

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

Hamabi urte dira (1986. urtetik) ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAk lanari ekin ziola.

Altza zahar hura erauntsi zuen ekaitza igaro ondoren, oroimen historikoa berreskuratzen, nortasun ikurrak nabarmentzen zein aztarna kultural errekuperatzen taxuz saiatzen ari da lagun multzo bat: txangoak Altzan zehar, gune interesgarriak ezagutzeko ibilbide gidatuak, aldizkaria (HAUTSA KENDUZ), boletina (ESTIBAUS), agiriak, planoak, argazkiak, e.a. jasotzen duen Tokiko Bilduma, -informatizatzen ari dena-, ekintza kulturalak, euskeraren aldeko lanak, istorio eta pasadizo berreskuratuak, ...

Lan horretan ez bilatu sentimentalismorik, nortasun ezak dakarren arazoei aurre egiteko kemena baizik. Etorkizunari begira, Mintegiak hedapen ahalegina egin beharko du, materialak jasotzeari eta ekintzak antolatzeari utzi gabe, XXI. mendeko Altzaren sustraiak ondo eta sakonki ereinduz, 'Altzak bihotzik ez duenik' ez dela beti egia erakutsiz.

ALTZAKO UDAL ADMINISTRAZIOA

Altzako eremuan biztanlegoa Ertaroan finkatzen hasi baldin bazen ere, gune honen administrazioa ez da beti berdina izan. Bere autonomiaren arabera, honako sailkapena egin dezakegu:

.**XIV. mendearen bukaeratik - 1821. urtera**: Altzako aginpidea Donostiako udalbatzari zegokion, beti ere horren berezko erakunde zein jarduera onartuz; esate baterako: Altzak bazituen bi zinpeko, diru-aferaz arduratzen zirenak; bat edo bi diputatu, aurrekoen laguntzaile modura aritzen zirenak, beharrezkoa zenean; prokuradore bat, bizilagunen ordezkaria auzietan edo arazo larriak zirenean. Edozein modutan Alkatea Donostiako alkatea genuen.

.**1821-1823**: udalbatza modernoak Espainiako Estatuaren garapenarekin batera sortu ziren; hiru urte horietan, liberalek agintzen zutelarik, Altzak lortu zuen udalerri guztiz independientea izatea. Alkatea izendatzeko ahalmena izan zen ezaugarri nagusia; herritarrek horrengana jo behar zuten lehenik, hain zuzen, beraien arteko tirabirak argitzeko. Bizilagunen ordezkariek udalbatza osatzen zuten, Altzako udaletxean bilduz.

Altzako antzinako eliza. (Tokiko Bilduma, Casares Kultur Etxea.)

Hala ere, maila honetan jorra daitezkeen eskumen guztiak ezin aurrera eraman hain epe laburrean.

.1821-1879: Donostiaren esku berriro ere, nahiz eta independentziaren aldeko jarrerak eta ekintzak noiznahi.

.1879-1940: aurreneko lan nekaezinaren ondorioz, Altza bere buruaren guztiz jabe bigarrengoz, 1910. urtean 'Hiribildu' titulua lortu zuelarik.



Buenabistako eskolak sasoi honi dagozkie. (Tokiko Bilduma, Casares Kultur Etxea.)

Agiri frankok ematen digute egoera honen berri, batez ere udal aktek. Mende honetako Udaletxe moderno bati dagokion jardueran murgilduta aurkitzen dugu gure herria, altzatarren behar berriei aurre egiten: irakaskuntza, bide berriak, osasuna, hauteskundeak, e.a.

Donostian Altza anexionatzeko ahaleginak etengabekoak bilakatu arren, faxisten garaipena gorpuztu arte itxaron behar izan zuten helburua lortzeko

.1940-1999: Aski ezaguna dugun egoera.

ANEXIO/DESANEXIOEN HISTORIOA

Aspaldikoak dira Donostia eta Altzaren arteko tirabirak. Egun ezagutzen dugun udal administrazioaren hastapena XIX. mendean sustraitua dago. Esate baterako, **1821. urtean**, muga finkoak eta 150 baserri dituela, Altzak berezko udaletxe modernoa osatzen du.

Garai hartako politakari lotutako gertakizunek egonkortasun eza haundia sortzen dute gurean; halere, **1879. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak 'poblado' maila onartzen du Altzarako, Hiribilduarena 1910. urtean emango diolarik.**

Dena den, 1915. urtean Donostiak lortu zuen Altzako udal bilkura irenstea, izugarrizko iskanbila sortuz gure herrixkan. Donostiak argi ta garbi azaltzen ditu bere asmoak: lurraren premian dago ekialdean kaserna militarrak direla eta. Donostiako ekialdean, noski, Altzako Ategorrieta dago, Altzako baserriak besterik ez baitziren gaur Donostiako auzoak diren Intxaurrondo, Bidebieta edota Ategorrieta.

Esan bezala, saio honek sesio handia sortu zuen, altzatarrek bertan behera uztea lortu zuten arte. *1915-VIII-29an*, Pedro Artzak burua zutelarik, 100 bizilagun sartu ziren udalbatzen gelan, anexioaren aurkako idazki bat entregatzeko, 47 bizilagun ospetsuk sinatuta. 1916ko azaroan egindako bozketan **288 bizilagunek kontra egin zuten**, alde 5ek besterik ez (ziurrenik udal zinegotziak), eta 275 abstenitu egin ziren.

Donostiarren ekimenak aurrera darrai, Madrilgo Gorteetara joko dutela iragarrikz; honek lotsa sortuko du Donostian bertan, aurrera egin ez zuelarik. Hirugarren bide bat proposatzen da: Altzako mugak aldatzea, Donostiarren esku Mirakruz aldea utziz.

Faxisten garaipenarekin anexioa gauzatuko da. Altzak bere burua kudeatzeko ahalmena galtzen du, Donostiako zati bat bilakatzen da. Corcuera eta Roteta altzako ordezkariak izango dira Donostiako udaletxean; hauek, euren karguak bereganatuko dituzte *1940-IV-19an.*
Orduan botatako hitzek ezin hobeto isladatzen dute egoera: "Altzak Donostia barnean garatu behar duen eginbeharra garatzeko besteen maitasuna behar duen gazte sendo eta gogorra besterik ez omen da."

Esan nahi baita, Altzak egin behar duena Donostiatik agindu behar dela, hots, kanpotik, bera ez baita bere ekintzen jabe. Eginbehar horrek bi helmuga ditu: bata, Donostiaren hazkundea zabaltzea ekialderuntz, Donostiaren aburuz gaizki erabilia zen nekazal eremua profitatuz; bestea, Espainiari mesede egitea, kaiaren inguruan batez ere (Donostia Pasaia ere anexionatzen saiatu zen eta).

Egoera berri honek Altzari eskeintzen zizkion 'abaintailak' 1939. urtean zehaztu zituzten Donostian bertan:

- Enpleguak gora egitea, obra publikoei esker
- Txaletak eraikitzea, dirudun berrientzat
- Komunikabide berri ezin azkarragoak jartzea
- Udal arteko zerbitzuak izatea
- Turismoa, dibisak, bidaiariak kaiatik iristea
- Aeroportua egitea
- Hirigintza arloan eredu bikainak ematea Espainiako nazioari

Hiri zerbitzuak gauzatzea omen da Altzak irabazi behar zuena, gerrak bere ekonomia txikitu duelako.

Honetaz gain, hazkunde orekatua, eredugarria, nekazal giroarekiko errespetagarria, bertakoekiko begirunean oinarrituta azken finean, iragarkitzen dute. Bistan da lortu duten ala ez.

Plangintza honen emaitzak, aldiz, SEGUNDO CASARES-ek aurreikusi zituen 1924ean. Orduan, anexioaren aurkako iritzi sendoa karrikaratu zuen, bai datuetan oinarritua (Altzan 4000 biztanle zegoen eta 15 urteetan zerbitzu anitz martxan jarri berriak) bai eta soziologian ere, "**Donostiako hiritartasuna altzatarren herri izaeraren kontrako eraso txikitzailea izango zela eta batasun zeharo artifiziala sortuko zutela**" zioen eta.



ALTZAKO UDALETXEA (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea.)

ALTZAN BARRENA

Eraikuntza ederrak, gune historikoak, mendi tontorrak, ... Altzako magalean denetarik topa dezakezue. Hemen luzatzen dizuegun txango, edo ibilaldia beste edozein delarik ere, lagungarri izango zaizu gure herriko txoko maitagarriak ezagutzeko.



(1) **Udaletxea**: orain dela 600 urtetik Altzako bizilagunen bilgunea. Egungo eraikuntza 1889. urtean egina da. Altzatarren gogoan toki oroigarria.

(2) **Santa Barbarako baseliza**: XVII. mendearen hasieran eraikita omen, 70. hamarkadan Altzak pairatu duen jukutriak txikitu bazuen ere, bere oroimenak bertan dirau. Donostia-Oreretaren arteko bide ertzean zegoen.

SANTA BARBARAKO BASELIZA (Tokiko Bilduma, Casares Kultur Etxea)

(3) **Tomasene baserria**: Arkitektonikoki Altzako baserririk ederrenetarikoa dugu. Besteak beste nabarmendu beharrekoak: barne egitura egurrezkoa; aurre aldeko harrizko borda, ogia egiteko labea duena; teilatuan dagoen gurutzea; harresiaren aztarnak; leihoa.

(4) **Molinao**: Jatorriz gaskoina (errota berria) den izen honek XV. mendean San Bartolome komentu donostiarrari zegokion errota baten berri ematen digu. Bere kokapena dela eta, auzo honen inguruko gatazka anitz izan dira Donostia eta Oreretaren artean.

(5) **Txipres:** Zalantzarik gabe Altzak gordetzen duen alerik bitxiena Erdi Aroko dorretxe hau dugu. 1425. urtean aipatua izateaz gain, ezin ahantzi bere horman topatzen dugun erdi puntuko arkua edota horrenbeste basakeri jasan duen bere egitura ikaragarria eta defentsiboa.

TXIPRES DORRETXEA (Tokiko Bilduma. Casares Kultur Etxea)

(6) **Abrin-Goikoa baserria**: Bi gurutze baldin baditu ere, baserri honek badu beste ezaugarri garrantzitsua: bere baitan Altza eta Oreretako mugarria dago, bi herrien arteko muga baserria erditzen duelarik.

(7) **Kutarro**: Altzako gailurra egitasmo askok mehatxatzen dute: Abiadura Haundiko Trena, Zabortegia, Autobia, ... badirudi denek gailendu nahi dutela gune esanguratsu hau. Halere, XIX. mendetik San Markoseko bidea babesten duen bateria oraindik dago ikusgai bertan.

(8) **Gotorlekua**: San Markoseko gotorlekua ez da oso zaharra, joan zen mendean eraiki zuten eta. Hegoaldea Altzari badagokio ere, gainontzekoa Oreretakoa da. San Marcos izena ere berri xamar da: XV. mendean Bizarain zuen izena tontor honek; gero Madalena mendia, eta azkenik San Markos. 1770 urtera arte, Madalena, Klemente Deuna, Anton Deuna eta Markos Sainduak berak aterpe zuten bertako beselizan

DEMOGRAFIA

Mendeen zehar Donostia eta Altza mugakide izan arren, egun hiri haundiaren auzo bat besterik ez da Altza. Izan ere, 40. hamardadan, faxistek gudan garaitu ondoren, Donostiako hiriak hiru lurralde irentsi zituen: Astigarraga, Igeldo eta Altza. Nahiz eta altzatarren lursaileetan asmo ugari aurrikusi (aireportua, hiri-lorategia, ...) 60. hamarkadan jasotako neurri gabeko eta bat-bateko jende-etorrerak Altzako bilakaera baldintzatu eta eraldatu egin zuen.

Laster batean, hirigintza basatiak Altzako itxura, tokia, harreman sarea zein nortasuna eta oreka hankaz gora irauli zuen.

Eraikuntzen bilakaera
1939-1955: Eraikuntza apalak eta kaxkarrak
1955-1965: 3-4-5 solairutako etxeak
1965-1970: Dorre luzeak, 19 solairukoak barne

Biztanlegoaren bilakaera



Azken 80 urtetan 6 bider haunditu da Altzako biztanleria, nabarmenki 1960-1980 bitartean.

Lehenengo menderdian zehar, biztanleriaren kopurua 20 urtero biderkatzen da Altzan: mende hasieran 2.103 biztanle zirenak (Altza historikoa = berdez diagraman) 1950. urtean 8.857 biztanle izango dira. Handik aurrera 10 urtero ematen da biderketa. Horrela, 1960. urtean 16.413 biztanle izango ditugu Altza Historikoaren lurraldean, eta 32.531 1970.ean. Hazkuntza erraldoi honek 1986. urtera arte eusten dio. Halere, honen eragile nagusia ez da izango kanpoko jendea etortzea, bertan jaiotzen ari direnak baizik.

Beraz, 90. hamarkadan Altza administratiboaren (Altza, Herrera eta Larratxo = gorriz diagraman) jende kopurua nabarmena izango da -1996.ean 23.000 biztanle-, baina kanpotik eraginiko hazkundea beste lurraldeetara eramaten ari da Donostia, esaterako Altza historikotik banatua izan den Intxaurrondora.

Altza eta Larratxo: Sexuaren eta adinaren araberako osaketa.
Composición de la población por sexo y edad en Altza y Larratxo

0-14 urte	%13'2	**1.331**	**1.445**
15-29 urte	%27'5	**2.829**	**2.986**
30-44 urte	%23'6	**2.739**	**2.447**
45-59 urte	%11'5	**2.013**	**2.112**
60-74 urte	%11'9	**1.338**	**1.133**
> 75	%4'2	**571**	**290**
		EMAKUMEZKOAK MUJERES	GIZONEZKOAK HOMBRES

Herrera: Biztanleen banaketa sexu eta adinaren arabera
Composición de la población por sexo y edad en Herrera

0-14 urte	%10	**86**	**94**
15-29 urte	%23'7	**206**	**226**
30-44 urte	%21"5	**214**	**177**
45-59 urte	%17'8	**170**	**152**
60-74 urte	%19'7	**202**	**157**
> 75	%7'3	**82**	**51**
		EMAKUMEZKOAK MUJERES	GIZONEZKOAK HOMBRES



Altza (Altza, Herrera, Larratxo, Mirakruz, Intxaurrondo, Sarrueta-Martutene, Bidebieta); gune beltzatuta egungo Altza administratiboa da (Altza, Herrera, Larratxo).

Situación de Altza histórica (Altza, Herrera, Larratxo, Mirakruz, Intxaurrondo, Sarrueta-Martutene, Bidebieta) respecto a Donostia; ensombrecida la zona actual administrativa (Altza, Herrera, Larratxo)

Altza administratiboko (Altza, Larratxo, Herrera) biztanleen jaiolekuak.
Población de Altza administrativo (Altza, Larratxo, Herrera) según su lugar de procedencia.

Jatorria Procedencia	Biztanleak Población	%
Donostia	12.622	57,3
Donostialdea	886	5,4
Gipuzkoa	701	4,5
Araba	113	0,4
Nafarroa	649	3,4
Bizkaia	232	1,6
Estatu espainola	7.291	25,5
Atzerria	429	1,8

Altza eta Larratxoko etorkinen batazbesteko % 72,1ekoa da (%34'2 Herreran) 50 eta 64 urte bitartekoen artean, Donostiako altuena hain zuzen ere.
El porcentaje de emigrantes alcanza el 72,1% en Altza y Larratxo (34,2% en Herrera) para los que en 1996 tenían entre 50-64 años, siendo el porcentaje más alto de todo Donostia.

BESTELAKO DATUAK - OTROS DATOS:

- **37'2 urte dugu adinaren batabestekoa Altza eta Larratxon, Herreran 42 urte izanik.**
- En Altza y Larratxo la media de edad es de 37'2 años; para Herrera es de 42.

- **Biztanleen artean %15'9-k daki euskara Altzan eta Larratxon, nahiz eta 10-14 urtekoen artean kopurua %23'6-koa izan. Herreran aldiz, %32'9 orokorrean eta %55 10-14 urte bitartean.**
  En Altza y Larratxo sabe euskera el 15'9% de la población, pero la media sube para las edades comprendidas entre 10-14, pues es del 23'6%. Para Herrera, los datos son más optimistas, pues la media total es de 32'9% y del 55% para el tramo de 10-14 años.

- **Langabeziari dagokionez, altzatarren %22'3 lanik gabe dago, gazteen artean %50'95ko kopuru beldurgarri eta lotsagabekoa dugu.**
  Los datos sobre el paro, hablan del 22'3& de la población sin trabajo, pero entre l@s jóvenes, es el 50'95% quien no lo tiene.

Datuen iturria-Datos obtenidos de:
1996ko Donostiako Biztanleen Udal Erroldaren Ustiaketa- Explotación del padrón municipal de Donostia de Habitantes de 1996
ALMIRALL, Amaia: *Casa de Cultura Casares: un proyecto para Altza.* Documento Base. 1995